

# EL CORREO

Territorios

## Artea ere, ingurumenari begira



Delcy Morelos-en 'Sorgin' pieza artistikoa, 'Lurraren arteak' erakusketan. Guggenheim-bilbao.eus



**Josean Morlesín**

Seguir

Ostirala, 3 apirila 2026, 19:28

Comenta

Guardar

Compartir

Gure errealitateari erreparatzeko, ikuspuntu ezberdinak har ditzakegu munduko bazter eta aspektu konplexuetara hurbiltzeko asmoarekin. Planetak pairatzen duen ingurumen-krisia politikan, hezkuntzan eta beste hainbat arlotan eztabaida eta kezka askoren ardatz saihestezina bihurtu dela ezin da ukatu. Gauzak horrela, ez da harritzekoa arteak ere gai hauekiko begirada ezberdinak garatu izana. Sortzaileek aspalditik dute natura aztertzekeo interesa, baina gaur egungo larrialdi-egoerak kontzientziazioa jartzen du proposamen askoren erdigunean, egun hauetan bisita daitezkeen erakusketa askotan ikus dezakegun bezala.

Bilboko Guggenheim museoak gai hauei lotutako bi erakusketa ditu orain. 'Lurraren arteak' izenekoak maiatzaren 5era arte egongo da ikusgai eta jasangarritasuna eta krisi klimatikoarekin sentsibilizatutako lanen hautaketa batek osatzen du. Material jasangarriak oso presente daude, naturatik datozenak eta naturara ere, etorkizun batean eta kalterik eragin gabe, itzul daitezkeenak. Bizirik dauden artelanetan hazitik ernamuindutako landare edota loreak haziz doaz, berriro lurrera bueltatu arte. Izan ere, lurra bera behin baino gehiagotan ikusiko dugu, artelan batzuen substratu material gisa. Delcy Morelos artista kolonbiarraren lur-eremu zabalak ia osorik betetzen du museoaren aretoetako bat. Esku-hartze honen izaera organikoa arkitekturaren geometria zorrotzera egokitzen da eta, 'Sorgin' izenburupean, antzinako euskal sendalariak ingurumenarekin zuten loturarekin erlazionatzen du. Ama lurraren erremedioen jakitun zirenei egindako erreferentzia oso aproposa da sendabideak behar dituen egungo errealitateari buruz gogoeta egiteko.

Artista hauen proposamenekin batera beste batzuenak ere ikus daitezke eta, horiez gain, tradiziozko ogibideek badute zer esan, hala nola euskal erlezaintzak (erlauntzak daude ikusgai) edo Hego Amerikako Wichi komunitateko emakumeek gauzatutako ehunkiak. Bi kasuetan kondairek, ohiturek eta naturarekiko errespetuak, gizadi eta izadiaren arteko sinergiak sendotzen dituzte.

## Mahku kolektibo indigenaren neurri handiko margolanen kolore deigarriek bizia ematen diete ikuslea inguratzen duten paisaia piktorikoei

Bestalde, museoak martxoaren 19an Ruth Asawa artistaren atzerabegirakoa ireki zuen, irailaren 13ra arte zabalik egongo dena. Lore eta landareen irudikapen grafikoez gain, oso interesgarria da alanbreak elkarlotuz sortzaile estatubatuarrak gauzatutako lan eskultorikoa. Sabaitik zintzilikatuko forma uhindu eta arinek landareen izaera bertsua dakarkigute gogora, naturaren oihartzun garden bezain agerikoa, kontraesankorra badirudi ere.

### **Amazoniara zuzendutako begiradak**

Bere aldetik, Rekalde aretoak Ra Asensiren '[Barne] lurra' erakusketa aurkezten digu, 'Barriek' programaren testuinguruan, hau da, Bizkaiko Foru Aldundiaren sormen-bekak jaso dituzten sortzaileen aukeraketaz osatzen dena. Kasu honetan, esan beharra dago artista ez dela epelkerietan ibiltzen eta ingurumenarekiko konpromezua tinko errotuta dagoela bere proposamenen muinean. Eredu estraktibista eta desparekotasunen iluntasuna agerian uzten duen planteamendu hau zabalik egongo da apirilaren 12ra arte eta hausnarketa kritiko propioari forma ematera gonbidatzen gaitu.

Egun horretan bertan amaitzen da Donostiako San Telmo Museoan iaztik ikusgai dagoen 'Amazoniak. Antzinako etorkizuna' erakusketa, erakunde horrek antolatua eta Centre de Cultura Contemporània de Barcelona-k ekoiztua (Kataluniako hiriburuan ikusgai egon zen 2025eko maiatzera arte). Egile askok ikuspuntu anitzetatik eskaintzen digute Amazoniara zuzendu dituzten begiradak. Aktibismoa kultura eta artearekin uztartzen da lurralde emankor horren garrantzia aldarrikatzeko. Ez dezagun ahaztu bere hedadurak planetaren biodibertsitate handi bat biltzen duela. Erakusketak bioma horren berezitasunetan murgiltzen gaitu, bertako kulturen ohiturak eta

kosmogonia aztertzen dituen bitartean.

## Artium museoko proposamenek ikuspuntu dekolonialak kontuan hartzen dituzte

Artista askok (hangoak eta beste leku zein testuinguru ezberdinetakoak) Amazonia interpretatu dute. Adibidez, Mahku kolektibo indigenaren neurri handiko margolanen kolore deigarriek bizia ematen diete ikuslea inguratzen duten paisaia piktorikoei. Proiektuaren izaera inmertsiboa haratago doa. Izan ere, Amazoniako usainak topatuko ditugu bertan eta hori gutxi balitz, 'maloka' izeneko eraikin tradizional batean aterpera gaitzke. Baliabide naturalak ahalik eta gehien errespetatuz, palmondoak inausi eta ehotutako palmekin gauzatzen da egurrezko zutabeek eusten duten teilatua. Jatorriz erabilera komunala duen etxe horrek ohartarazten gaitu gizartea eta naturaren arteko orekaren garrantziaz. Bideo eta erretratu ezberdinek ingurune hartan bizi direnen testigantzak eskaintzen dizkigute, Amazoniaren irudi fidelago bat osatzen laguntzen digutenak.

Gasteizen, Artium museoko proposamenek ikuspuntu dekolonialak kontuan hartzen dituzte. «Zirkulu batetik begira begiraden zirkulu batean» erakusketa kolektiboak 'besteen' irudikapena eztabaidatzen du, mendebaldeko ikuspegiaren ezarpena zalantzan jarriz. Bere aldetik, 'Juana Cima. Begirada disidente bat'-en planteamendu monografikoak Juana Cima artistaren artelanen hautaketa bat aurkezten digu, bost lurraldetan egituratzen den ibilbidearen bidez. Urrats bakoitzak Juanaren sormenaren alderdi edota fase bereziak jasotzen ditu, ekofeminismoa eta izpiritualtasuna, esaterako. Bere lanak hegemonikotzat kontsideratzen den diskurtsoarekin talka egiten du, disidentzia artistikoa gorpuztuz. Feminismoa, ekologia eta dekolonialismoa bezalako gaiak Marwa Arsanios-en erakusketa ere ardazten dute. Martxan dirauen 'Who is Afraid of Ideology?' dokumental

saila abiapuntutzat hartuta, lurra ustiatzeko konbentzioen inguruan jartzen da arreta. Marwaren lan eta hausnarketak apirilaren 12ra arte aztertu ahal izango dira; aurreko bi erakusketak, ordea, abuztuaren amaierara arte luzatuko ditu Artiumek.

Bukatzeko, beste diziplina askotan gertatzen den moduan, aipagarria da artearen goi-mailako hezkuntzak eta bertan suertatzen diren ekimen berritzaile askok, gaur egun, jasangarritasunarekin gero eta lotura estuagoa dutela. Izan ere, Europan adibidez, araudiek erabat bideratzen dituzte ikasprozesuak Garapen Jasangarrirako Helburuetara. Lege-esparru hori ahaztu gabe, oso garrantzitsua da gizabanakoa eta gizartea beren inguruaz jabetzea, hausnarketa kritikoa eta ekintza eraginkorrak sustatuz. Arteak, gaur egun, atek ingurumenara zabaltzen dizkigu behin baino gehiagotan, errealitatean pauso arduratsuz barnera gaitzen.

[Temas](#) [Euskera](#) [Museo Guggenheim Bilbao](#) [Artium](#) [Arte](#)

 Comenta

 Reporta un error